

“ALDALUR ARABA, PERTSONA BAKARREKO SL”

**2018KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO URTEKO EKITALDIARI
BURUZKO MEMORIA**

1. OHARRA.- SOZIETATEAREN JARDUERA

Sozietatea 2009ko apirilaren 7an eratu zen eta Gasteizen du egoitza, Probintzia Plazan, zk.g., Arabako Foru Aldundiaren Jauregian. Haren sozietate xedea, Estatutuetoako 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondoko hau da:

- a) Landa edo hiri lurak erostea eta saltzea, errentan ematea edo lagatzea; hain zuzen ere, nekazaritza eta arrantza ustiapen berriak edo haiekin zerikusia duten industriak (bereziki, nekazaritza eta arrantza sektoreko bezero eta hornitzaileak) jartzea edo garatzea errazteko nahiz herri intereseko azpiegitura jartzeak sortutako kalteak arintzeko.
- b) Beste batzuekin batera landu ahal izango diren era askotako ustiapenak sustatu eta kudeatzea, nekazaritza eta arrantza ustiapen horien lana errazte aldera. Horretarako, instalazio logistikoaren erabilera erraztu eta bultzatuko du eta energiaren sorrera, hornigai biltegiak, administrazio bulegoak, eta abar sustatuko ditu.

Bat datoz sozietatearen jardueraren eta xedea.

Sozietateko partaidetza guztiak Arabako Foru Aldundiak dauzka. Honek Gasteizen (Araban) dauka bere egoitza eta Foru Administrazioaren zati da.

2. OHARRA. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Irudi zehatza

2018ko abenduaren 31n amaitu den ekitaldiko urteko kontuak (erantsitakoak) sozietatearen kontabilitate erregistroetatik atera dira, eta azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuak, Kontabilitate Plan Orokorra onetsi zuenak, onetsitako Kontabilitate Plan Orokorren eta kontabilitate arloan nahitaezkoak diren lege xedapenen arabera aurkeztu dira. Horrela, sozietateak ekitaldi horretan izan dituen ondare, finantza egoera eta eragiketen gaineko emaitzen eta dagokion ekitaldian ondare garbian izandako aldaketen irudi zehatza ematen da, alderdi garrantzitsu guztietan.

Bazkideen Batzar Orokorrek, oraindik, 2018ko ekitaldiari dagozkion urteko kontu laburtuak onetsi ez baditu ere, sozietatearen administratzaileek ez dute uste esandako onepenen ondorioz haietan aldaketa garrantzitsurik izango denik. 2018ko ekainaren 12ko ohiko batzar orokorrean onetsi ziren aurreko ekitaldiko urteko kontuak.

b) Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Urteko kontu hauek egitean, memoriako 4. oharrean laburtzen diren kontabilitate printzipioak eta arauak aplikatu dira. Ondarean, finantza egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate printzipio guztiak aplikatu dira urteko kontu hauek egiteko.

c) Informazioaren erkaketa

Merkataritzako legeriaren arabera, administratzaileek, ekitaldi honetako zifrez gainera, aurreko ekitaldikoak ere aurkezten dituzte, balantzeko, galera eta irabazien kontuko, ondare garbiaren aldaketen egoerako, eskudiru fluxuaren egoerako eta memoriako partida bakoitzarekin batera, alderatu ahal izateko. Bi ekitaldietako partidak alderagarriak dira.

Urteko kontuak 8/2014 Foru Dekretuak onetsitako ereduaren arabera aurkeztuko dira.

d) Informazioaren erantzukizuna eta egindako zenbatespenak

Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa betez egin ditu sozietateak bere finantza egoerak, eta ez dago hurrengo ekitaldian aktibo edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragingo duen arrisku garrantzitsurik.

Erantsitako urteko kontuetan, batzuetan, sozietatearen zuzendaritzak egindako zenbatespenak erabili izan dira, bertan erregistratuta dauden aktibo, pasibo, diru sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk kuantifikatzeko. Funtsean, honako hauek dira zenbatespenak:

- Etorkizuneko ordainketa konpromisoak zehazteko egindako zenbatespenak.
- Higiezineta inbertsioen balio narriaduraren zenbatespenak.
- Amortizaziorako zuzkidura.

Baliteke, nahiz eta zenbatespen horiek aztertutako gertakarien gainean urteko kontu horiek egiteko unean zegoen informaziorik onena oinarri hartuta egin ziren, etorkizunean, hurrengo ekitaldi batzuetan aldatzera behartzen duten (gorantz edo beherantz) gertakariak egotea, eta hori modu prospektiboan egingo litzateke, zenbatespen aldaketaren ondorioak aitortuz etorkizuneko galera-irabazien kontuetan.

3. OHARRA. EMAITZEN BANAKETA

Emaitzaren banaketari buruz administratzaileek Bazkideen Batzar Orokorrari aurkeztuko dioten proposamena, berak onetsi dezan, honako hau da:

	2018
Ekitaldiko emaitza, galera eta irabazien kontuen arabera	-1.510,97
Total	2018
Bazkideen ekarpena, galerak konpentsatzeko	-1.510,97
Total	-1.510,97

4. OHARRA.- ERREGISTRO ETA BALIOESPEN ARAUAK

Sozietateak, 2018ko ekitaldiko urteko kontuak egiteko erabilitako balioespen arau nagusiak, indarrean dagoen legeriaren arabera, honako hauek izan dira:

a) Higiezinetakako inbertsioak

Arabako Foru Aldundiak bere jabetza diren zenbait ondasunen gaineko dohaineko gozamina eratu zuen ALDALUR ARABA Pertsona Bakarreko SM sozietatearen alde, hogeita hamar urteko aldirako, lagapen erabakia izenpetu zenetik aurrera. Gozamedunak egoki deritzon moduan kudeatu ahal izango ditu gozamenean emandako lurrak, eta beste batzuek lagapen edo alokairu gisara haiek erabiltzea xedatu ahal izango du. Arabako Foru Aldundiak jabetza soilari eusten dio.

Hasierako balioespena

Hasierako balioespena egiten da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga arautzen duen 11/2003 Foru Arauaren 32.1 artikuluan xedatutakoan oinarrituta. Gozamen eskubide eratu deneko finken katastro balioaren % 60 da 30 urterako eratutako gozamenaren balioa.

Balioaren narriadura

Prekarioan edo dohainik lagatako finketan balioaren narriadura erregistratu da, iraupen aldia edozein dela ere, sozietatearen helburua eta lagapen erabakietan jasotzen denaren arabera izenpetu daitezkeen luzapenak kontuan hartuta.

Amortizazioa

Gainerako finkak gozamenaren iraupen aldian amortizatzen dira, hau da, 30 urtean, balio katastroaren % 2 urteko.

b) Finantza tresnak

Finantza-aktiboak

Finantza-aktiboak egoera balantzean kontuan hartzen dira, eskuratzen direnean, eta hasieran arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira, oro har, eragiketaren kostuak barne.

Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak, hasiera batean, transakzioan gertatutako kostuak kendu ondoren garbi jasotako efektiboarekin erregistratzen dira. Hurrengo ekitaldietan amortizatutako kostuaren arabera balioetsiko dira, horretarako erabiliz benetako korritu tasa.

c) Ondare garbia

Berezko ondare tresnak funts propioen barruan sartzen diren finantza tresna guztiak dira.

Erregistro arauaren eta indarrean dagoen Kontabilitate Plan Orokorraren 9.4 zenbakiko balioespenaren arabera, sozietatea eratzearen ondoriozko gastuak eta, zehatzago esateko, kapital soziala harpidetu eta ordaintzearen ondoriozkoak zuzenean erregistratu dira Ondare Garbiaren aurka, erreserba txikiago gisa.

d) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Zenbait finkaren gozamenaren dohaineko lagapenak, Arabako Foru Aldundiak egindakoak, sozietatearen ondarean izandako eragina jasotzen du partida honek.

Beraz, gozamenak lagapenari begira duen balioan balioesten da, eta emaitzetara aldatuko da, kontsideratutako narriaduraren eta balio galeraren arabera.

Emandako aktiboaren ezaugarriak eta bere ustiapenaren ondorioz geroan lor daitezkeen emaitzetan duen eragina direla eta, ez da kontuan hartu dohaintzak zerga aldetik duen eragina.

e) Mozkinen gaineko zerga

2018ko ekitaldirako sozietateen gaineko zerga, Sozietateen gaineko Zergarenaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauari jarraituz likidatu da.

Zerga arruntagatiko gastua zerga arruntagatiko eta zerga geroratuagatiko gastuak batuta zehazten da. Zerga arruntagatiko gastua zehazteko, indarrean dagoen karga tasa aplikatzen zaio zerga mozkinari eta hobari eta kenkari orokorren zenbatekoan lortutako eta ekitaldian aplikatutako emaitza murrizten da. Sozietateak zergaren oinarri negatiboa aurkeztu du, eta ez du erregistratu zerga kontzeptu horren gainean inolako gasturik.

Zerga geroratuen ondoriozko aktibo eta pasiboek etorkizunean ordaintzeko edo berreskuratzeko aurreikusitako zenbateko gisa zehaztutako denbora diferentziak dituzte jatorrian, hala badagokio; haiek aktibo eta pasiboen liburu balioaren eta oinarri fiskalaren arteko diferentziaren ondoriozkoak dira. Zenbateko horiek erregistratzeko, denbora diferentziari berreskuratzea edo likidatzea espero den karga tasa aplikatzen zaio.

Bestalde, zerga geroratuen ondoriozko aktiboak (denbora-diferentzia kengarriekin identifikatutakoak) soilik onartzen dira Sozietateak etorkizunean horiek erabiltzeko adina zerga-irabazi izango duela uste bada eta beste aktibo eta pasibo batzuen hasierako aitortpenetik eratorritakoak ez badira (negozio konbinazioetan izan ezik) zerga emaitzan eta kontabilitateko emaitzan eraginik ez duen eragiketa batean. Geroratutako zergen ondoriozko gainerako aktiboak (zerga oinarri negatiboak eta oraindik konpentsatu gabeko kenkariak) onartuko dira, baldin eta Sozietateak, etorkizunean, horiek erabiltzeko adina zerga irabazi izango duela uste bada. Balioespen zuzentzearen arabera, zergaren kuotan hobari eta kenkariak aplikatu edo konpentsatzen diren ekitaldiari dagokion zergagatiko gastuaren murrizpentzat hartzen dira.

Kontabilitateko itxiera bakoitzean, erregistratuta dauden zerga geroratuak berrikusten dira (aktiboak zein pasiboak), indarrean jarraitzen dutela egiaztatzeko. Horrelakoetan, egindako azterketen emaitzen arabera beharrezkoak diren zuzenketak egiten zaizkie.

f) Diru sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapen irizpidearen arabera egozten dira, haietatik eratortzen den moneta edo finantza korronea jazotzen den unea aintzat hartu gabe.

Dena den, sozietateak ekitaldiaren itxiera datan izandako mozkinak baino ez ditu kontabilizatzen; aurreikusten diren arrisku eta galerak, berriz, noizean behingoak izan arren, jakin bezain laster kontabilizatzen dira.

g) Ingurumen izaerako ondare elementuak

Sozietatearen jardueraren ohiko garapenak ingurumenean sor ditzakeen eraginak ezabatu, mugatu edo kontrolatzea helburu duten sistema, ekipo eta instalazioak eskuratzean izandako kostuak ibilgetuko inbertsioztat hartzen dira.

Ingurumenarekin lotutako gainerako gastuak, aurrekoak ez bezalakoak, ekitaldiko gastutzat jotzen dira. Ingurumen arloan egon daitezkeen hornidurak kalkulatzeko, horien berri izan den unean haien sortzapenaren zenbatespenik onenaren arabera zuzkitzen da, aseguru polizek estaltzen ez badituzte eragindako kalteak.

Administratzaileek egiaztatzen dute Sozietateak ez duela ondarearekin, finantza egoerarekin eta horien emaitzekin lotuta garrantzitsua izan daitekeen ingurumen arloko erantzukizun, gastu, aktibo, hornidura edo arriskurik.

h) Lotura duten alderdien arteko transakzioetan erabilitako irizpideak

Horrelakorik egonez gero, talde bereko enpresen arteko eragiketak, lotura maila gorabehera, arau orokorren arabera kontabilizatzen dira. Egindako transakzioen helburu diren elementuak hasieran kontabilizatuko dira, arrazoizko balioaren arabera. Geroko balioespena dagozkion kontuetarako arau berezietan ezarritakoaren arabera egiten da.

Taldeko enpresatzat hartzen da Arabako Foru Aldundia, sozietatearen bazkidea (6. Oharra).

5. OHARRA. HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK

Higiezineta inbertsioen kontuak egungo eta aurreko ekitaldian izan duen bilakaera ondoko hau izan da:

	Kostua	Amortizazioa	Narriadura	Garbia
Amaierako saldoa (2016.12.31)	455.431,00	-15.987,03	-381.676,59	57.767,38
Gorakadak	0,00	-2.458,44	0,00	-2.458,44
Jaitsierak	0,00	0,00	0,00	0,00
Amaierako saldoa (2017.12.31)	455.431,00	-18.445,47	-381.676,59	55.307,94
Gorakadak	0,00	-2.458,44	0,00	-2.458,44
Jaitsierak	0,00	0,00	0,00	0,00
Amaierako saldoa (2018.12.31)	455.431,00	-20.903,91	-381.676,59	52.849,50

Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2010eko uztailaren 27an hartutako 487/2010 Erabakiaren bidez, ebatzi zuen Aldalur Araba PBSM sozietatearen alde foru jabetza diren zenbait ondasunen gaineko gozamina eratzea, hark lur banku baten berezko helburuetara bideratu ditzan.

Lagatako finkek guztira 1.686.048,60 m²-ko azalera dute, eta balio osoa, kontabilitate erregistroaren ondorioetarako, 455.431,00 euro da. Lagapena dohainik egiten da, hogeita hamar urteko aldirako.

Sozietatearen administrazio kontseiluak erabaki horren onespina berretsi zuen.

Hona hemen finken jatorrizko egoera:

	Azalera m ² -tan	Balioa
- Finka libreak	545.054,12	70.938,06
- Errentan diren finkak	12.154,82	2.816,35
- Doan lagatako finkak	1.003.818,00	357.914,56
- Prekarioan lagatako finkak	125.021,66	23.762,03
TOTAL	1.686.048,60	455.431,00

Finken errentamendu kontratuak 2009an formalizatu ziren bost urterako.

Kasuan kasuko finkak Gasteizko aireportuaren inguruetakoei lagatzea 2005ean formalizatu zen hamar urterako.

Egun, errentamendu eta lagapenaldiak igaro ondoren, prekarioan lagata daude.

Gainera, finka sorta bat prekarioan lagata egon da gozamina eratzean, Gasteizko eta Navarreteko udal mugarteetan.

Kontuan eduki da hasiera batean dohainik lagatako finken balio osoaren nariadura (357.914,56 euro), eta prekarioan lagatako finkena (23.762,03 euro).

2016ko ekitaldian zehar, Forondako aireportuaren inguruko finken katastro balioa berrikusi da, eta haien balioa nabarmen urritu da. Horren ondorioz, gozamenaren balioa ere urritu da. Dena den, egiaztatu izanik finka horien balioa urritu egin dela, balio zuzenketa horren ondoriozko doikuntza ez litzateke materiala izango.

6. OHARRA.- FUNTS PROPIOAK

Egoera balantzearen ondare garbiaren gaineko epigrafe honen xehetasuna, 2017ko abenduaren 31n eta 2018ko abenduaren 31n, hau da:

	2018	2017
- Sozietatearen kapitala	18.000,00	18.000,00
- Legezko erreserba	4,45	4,45
- Beste erreserba batzuk	-552,43	-552,43
- Bazkideen ekarpenak	6.079,48	8.248,31
- Ekitaldiko emaitza	-1.510,97	-2.168,83
GUZTIRA	22.020,53	23.531,50

Kapital harpidetua

2018ko abenduaren 31n, sozietatearen kapitala euro leko balio nominala duten 18.000 partaidetzaz osatuta dago, guztiak harpidetu eta ordainduak.

Arabako Foru Aldundia da sozietatearen bazkide bakarra.

Legezko erreserba

Sozietate Anonimoei buruzko Legeak jasotakoari jarraiki, ekitaldiko mozkinaren % 10aren pareko zifra eman behar da legezko erreserbarako, harik eta horrek, gutxienez, kapital sozialaren % 20 lortu arte.

Legezko erreserba kapitala gehitzeko erabil daiteke, dagoeneko gehitutako kapitalaren % 10etik gorako saldoaren zatian.

Aurretik aipatutako helbururako ez bada, eta kapital sozialaren % 20 gainditzen ez badu, erreserba hau galeren konpentsaziorako baino ez da erabiliko, baldin eta xede horretarako moduko adina erreserbarik ez dagoenean.

Bazkideen ekarpenak

2017ko urriaren 26an, Arabako Foru Aldundiak 5.000,00 euro ordaindu zituen, sozietateak 2017an izan zuen jardueraren ondorioz izan zituen konpromiso ekonomikoei aurre egiteko.

2018an, bazkideen ekarpenen bidez eginiko kopuru bat ere ez da onetsi galerak konpentsatzeko, badago-eta nahikoa diru oraindik aplikatu ez dena eta ahalbidetzen duena ekitaldiko galerak guztiz konpentsatzea.

7. OHARRA. DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Partida honek ondoko bilakaera hau izan du egungo eta aurreko ekitaldian:

- Gorakada	0,00
- Emaitzetara intsuldatzea	-2.458,44
- Saldoa 2017/12/31n	55.307,94
- Gorakada	0,00
- Emaitzetara intsuldatzea	-2.458,44
- Saldoa 2018/12/31n	52.849,50

Finken gozamenaren dohaineko lagapenak, Arabako Foru Aldundiak 2010eko uztailaren 27ko Diputatuen Kontseiluaren Erabakian oinarrituz eginak, daukan eragina jasotzen du partida honek. (5. Oharra).

Lagatako lursailak direla-eta ekitaldian amortizatutakoaren arabera aplikatuko da emaitzetara.

8. OHARRA. EGOERA FISKALA

2017ko eta 2018ko ekitaldietako zerga oinarri negatiboak bat datoz kontabilitate emaitzarekin, eta, hurrenez hurren, 2.168,83 euro eta 1.510,97 euro dira, eta etorkizuneko ekitaldietan izan daitezkeen zerga oinarri positiboekin berdindu ahal izango dira.

Sozietateak balantzean eraketa gastuen ondorioz sortutako zerga oinarri negatiboen zerga geroratuaren arabera aktiboa erregistratu du, eta horren zenbateko garbia borondatezko erreserbei egotzi zaie. Zerga geroratuaren zenbatekoa, 2017ko abenduaren 31n eta 2018ko abenduaren 31n 213 euro da, zerga oinarri osoari % 28ko zerga tasa aplikatzearen ondorioz, eta hurrengo hamabost ekitaldietan konpentsa daiteke.

Sozietateak irekita dauzka zerga agintarien ikuskatzailetzarako 2014ko, 2015eko, 2016ko, 2017ko eta 2018ko ekitaldiak, bere jarduerari aplikagarri zaizkion zerga guztietarako. Sozietateko administratzaileen iritziz, ez da espero etorkizuneko ikuskaritzen ondoriozko zerga pasiborik, eta, horrenbestez, erantsitako urteko kontuek ez dute kontzeptu horregatik hornidurarik jasotzen.

Foru Ogasunarekiko zerga zorren saldoaren eraketa, 2017ko abenduaren 31n eta 2018ko abenduaren 31n, hau da:

	2018	2017
- Ogasun Publikoa zorduna BEZa	98,60	114,74
GUZTIRA	98,60	114,74

9. OHARRA. DIRU SARRERAK ETA GASTUAK

Gastuaren kontzeptu esanguratsuena ondasun higiezinaren gaineko zerga da, 1.575,69 eurokoa (1.502,79 euro 2017an).

Higiezinetakoa inbertsioak amortizatzen zuzkidura konpentsatzen da jasotako dirulaguntzak eta dohaintzak emaitzetan aplikatuz.

10. OHARRA.- LOTURIKO ALDERDIEKIKO ERAGIKETAK

Akziodunarekiko eragiketak

2017an, Arabako Foru Aldundiak 5.000,00 euroko galerak konpentsatzeko ekarpenak egin zituen. 2018an, ez du horretarako inolako zenbatekorik esleitu.

11. OHARRA. INGURUMEN INFORMAZIOA

Ez dago dagozkion aurreikuspenen bidez babestu beharreko ingurumen arloko arrisku edo kosturik.

Era berean, ez dago ingurumenaren babesarekin eta hobekuntzarekin lotutako gertakizunik irekita, eta, bestalde, ez dago ingurumenaren arloko etorkizuneko inbertsioetarako konpromisorik, ez eta ingurumenarekin lotutako erantzukizunik eta oraindik jaso gabeko konpentsaziorik ere.

Sozietateak ez du ingurumenaren arloko dirulaguntzarik jaso, ez eta ingurumenarekin lotutako jardueren ondoriozko sarrerarik ere.

Bestalde, ez dago berotegi efektuko gasak isurtzeko eskubideetatik eratorritako inolako eskubide, kontratu, diru sarrera, gastu edo arriskurik.

12. OHARRA. ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN GAINEKO INFORMAZIOA

Administrazio Kontseiluko kideek ez dute jaso inolako ordainsaririk sozietatetik, ez 2018ko ekitaldian, ezta aurrekoan ere. Beste alde batetik, sozietateak ez du goi zuzendaritzako langilerik.

Administrarietiek eta pertsona lotetsiek ez dute jakinarazi sozietatearekin zuzeneko edo zeharkako gatazka egoerarik dutenik, Kapital Sozietateei buruzko Legeak 229 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat kontratatu du, sozietateen administratzaileak izan ditzaketen arriskuak estaltzeko.

13. OHARRA. AUDITOREAREN ORDAINSARIA

Sozietatearen auditoreek sortutako ordainsariak 1.000,00 euroko zenbatekoa izan du 2017ko ekitaldian, eta 1.000,00 eurokoa 2018ko ekitaldian. Ordainsari horiek Arabako Foru Aldundiak ordainduko ditu.

14. OHARRA. EKITALDIAN ZEHAR HORNITZAILEEI GERORATU ZAIZKIEN ORDAINKETEI BURUZKO INFORMAZIOA

Ekitaldi honetan eta aurreko ekitaldian zehar, sozietateak ez du eskuratu ondasun eta zerbitzurik, eta transakzio bakarrak tokiko tributuak ordaintzeko izan dira. Ondorioz, hornitzaileei ez zaie ordainketarik egin merkataritza eragiketengatik.

15. OHARRA. LANGILE DATUAK ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN EKARPENAK

LANGILE ETA A.F.A.KO EKARPENAK DATUAK	DATOS DE PERSONAL Y APORTACIONES DE D.F.A.	2018	2017
KOSTUA PERTSONAKO	COSTE PERSONAL	0,00	0,00
LANGILEEN GASTUAK	GASTOS DE PERSONAL	0,00	0,00
PLANTILLA	PLANTILLA	0,00	0,00
AFA-REN DIRULAGUNTZAK	APORTACIONES D.F.A.		
KAPITAL DIRULAGUNTZAK	SUBVENCIONES DE CAPITAL	0,00	0,00
USTIAPENERAKO DIRULAGUNTZAK	SUBVENCIONES A LA EXPLOTACIÓN	0,00	0,00
GALERAK BERDINTZEKO EGINDAKO EKARPENAK	APORTACIONES COMPENSACIÓN DE PÉRDIDAS	0,00	5.000,00
KAPITAL ZABALKUNTZA	AMPLIACIONES DE CAPITAL	0,00	0,00

“ALDALUR ARABA, PERTSONA BAKARREKO SL”

2018KO EKITALDIKO KUDEAKETA TXOSTENA

Ekitaldiko emaitzak 1.510,97 euroko galera eragin du, eta, funtsean, sozietateari gozamen pean lagatako finen ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokio, 1.575,69 euroko zenbatekoarekin. Era berean, beste gastu batzuk ere sortu dira, 2.570,93 euroekin.

Diru sarrerak alokairuen (177,21 euro) eta emaitzei dirulaguntzak (2.458,44 euro) aplikatzearen ondorio dira.

Nola bazkideek nahikoa ekarpen egin duten emaitza negatiboa konpentsatzeko, ez da ekarpenik egin ekitaldian.

Ondare egoerari dagokionez, sozietateak lagata dauka zenbait landa finen usufruktua bere jarduerarako. 2018. ekitaldian, ez da gauzatu ekintzarik finka horietan. Luzatu egin dira ekitaldian bukatutako alokairu eta erabilera lagapen kontratuak, aldeek ez baitiete uko egin dagozkien akordioei.

Memoria honek 17 orrialde ditu, eta Administrazio Kontseiluak formulatu du, 2019koaren(e)ko bilkuran.

Administrazio Kontseilua:

Eduardo Aguinaco López de Suso jn.
Kontseiluburua

Amaia Barredo Martín and.
Kontseiluko kidea

Alfredo Sáez de Castillo Beltrán de Otalora jn.
Kontseiluko kidea

Iñaki Aldekogaraí Labaka jn.
Kontseiluko kidea

Iñaki Guillerna Sáenz jn.
Kontseiluko kidea